


Aurretik doa: ez naiz inoiz AEBetan egon, eta egia esan ez dut bisita egiteko presa handirik. Gonbidapen asko jaso arren, ez dut pazientziarik izan, ez dakit, hegaldi bat hartu, plan bat osatu, ibilbide bat marrazteko. Eta, hala ere, AEBetakoa gure bizitzan oso sartua den errealitate bat da. Gehiegi? Agian bai. Ez dakit txarra edo ona den, baina egunero dugu “made in USA” den harremanen bat, hangoa kontsumitzen dugulako, irakurtzen dugulako, telebista edo zinema bidez ikusten dugulako...

Bertako hauteskundeak lau urtean behin sartzen dira gure bizitzetan, era berean, pelikula baten modura. Demokratak eta errepublikanoak, oraingo honetan Kamala Harris versus “Thedonald” Trump, “Liberal” eta “The Grand Old Party”.

Badu bere xarma, azken finean, bertan inoiz egon ez arren norberaren nortasunean AEBetako zenbait gauza iltzaturik izateak. 50 estatu biltzen ditu, eta bakoitzak zer-bait eman digula antzeman daiteke. 20 hartu ditugu ibilbide honetan, gehienak «txikiak» edo «kanpoaldekoak», hauteskunde bezpera haue-tan paperezko bidaia bat osatzeko, etxetik ikuspegia eratzeko. Kasu honetan, nire bizitzari nolabaiteko ekarpena egin dioten 20 estatu.

NEW JERSEY:
‘THE BOSS’ ETA ‘THE VOICE’

AEBak oso goiz sartu ziren gure Milango etxean. «Ale, bada-kizu oso txikia zinenean zu lokartzeko zurekin dantzatzeko nuela, Bruce Springsteen entzuten?». Nire amaren hitz



AEB-AK 20 GELTOKITAN

Amerikako Estatu Batuak etxetik ikusita

📁 **AMERIKA** / Alessandro RUTA

Bizitza «amerikarra» izan daiteke, inoiz bertan egon ez arren? Bai, mundu globalizatu eta hiperkonektatu honetan bereziki. Hauteskunde bezperatan, «sofatik» egindako bidaiatxo bat prestatu dugu, 20 estatu ezberdin zeharkatuz.

hauek aztoratu ninduten, are gehiago berak ingelesa ez zekielako.

“*Dancing in the dark*” zen, portzierto, nire *mamma*-ren kantarik gogokoena, eta egia esan orokorrean niri ere *The Boss* gustatzen zait. «Eta gainera, zure aitarekin antzekotasun handiak ditu», azpimarratu zuen amatxok. Nik ez nuen irudikatzen nola, baina ez nuen eztabaidan jarriko. Bitartean, bitxia da hau, nire aitari

askoz gehiago gustatzen zaio beste New Jerseyko abeslari bat, mister Frank Sinatra, *The Voice*, baina, lokartzeko, berak ez zuen dantzatzeko nirekin.

TEXAS:
BERLUSCONI, JR-REN PARE
Italian, eta mundu osoan beharbada, Dallas Los Angeles baino ospetsuagoa bihurtu zen pare bat belaunalditan. Guretzat, lotura Silvio Berlusconi da, oraindik telebistaren

Bruce Springsteen, irailaren 15ean Asbury Park-en eskainitako kontzertuan, bera jaio zen New Jersey Estatuan, hain zuzen. Astrida VALIGORSKY | GETTY

erregea ez zenetik. Mediaset sortu ondoren emisio orduak nolabait bete behar zituen eta lira gutxiren truke hainbat telesail erosi zituen “*Il Cavaliere*”-k. Besteak beste, horixe: “Dallas”.

Hitz gutxitan laburbilduta, Ewing familia petroleo-zalearen gorabeherak, Texaseko hirian. Milioika ikusle astero-astero prest ziren J.R. eta Sue Ann pertsonaien abenturak irensteko, soinu-banda ahaztezinak lagunduta. Eta Berlusconi, JR bezala, dirutza apurka-apurka harramazkatzen joan zen.

KANSAS:
NONBAIT OSTADARRAREN GAINEAN
Liburua ala pelikula? Zein da hobe, “Ozeko Aztia”-z ari bagara? «Toto, uste dut honezkeror ez gaudela Kansasen», aipatzen zion bere txakurtxoari Dorothy, “*Somewhere over the rainbow*” abestu aurretik. Magiaz beteta dago ipuin hori.

Bide batez esanda, Kansas City hiria ez dago Kansasen, Missourin baizik, geografiaren misterioak. Missouri eta Kansasen arteko harremanak ez dira onak. Eta bide batez...

MISSOURI:
ITALIAKO ZINEMA KANSAS CITYN
... Bigarren Mundu Gerraren ondoren AEBetako «kolonia» bat bilakatu zen Italia. Zenbait saiakera lanek eta ikerketek nabarmendu dute, baina ziur aski zinematik beste ezerk baino hobeto islatu zuen egoera berria. Italiar erara, noski, barregarri, alegia: “*Un americano a Roma*” (“Amerikar bat Erroman”), Alberto Sordi handiarekin.

Pelikula itzela da. Nando Mericoni Erromako gazte bat da, baina amerikar baten antzera hitz egiten eta jokatzeko

du, Kansas City amets duela. Azkenik ohartu da, ordea, bizi-modu italiarra askoz hobea dela. Sordi hil aurretik Kansas City hiriak ohorezko herritartasuna eman zion aktoreari.

ARKANSAS:

CLINTONEN... «ITXAROPENA»

Gizartearen mirariak: inor txok ere ez luke Estatu hau kanpoan ezagutuko bertan oso pertsona famatua jaio izan ez balitz. Egia esanda, AEBetako erdi-erdian kokatuta, Little Rock hiriburu, Arkansasek ez du ezertan eragiten. Baina bat-batean, 1992ko hauteskundeetarako, hautagai fresko eta moderno bat iritsi zen handik: William “Bill” Clinton. Bere aldamenean, familia ideala itxuraz: Hillary (Rodham) emaztea eta Chelsea alaba. Clinton, gainera, Arkansaseko Hope hirian jaioa zen, nonbait «itxaropena» zeka-

ren berarekin, patu gisa. Gero etorri zen Monica Lewinskirekin afera, baina hori beste kontu bat da.

WASHINGTON:

MUSIKAN ETA JANZKERAN ESTILO BAT

Washington ez da AEBetako hiriburua bakarrik, Estatu bat ere bada, ipar-mendebaldean kokatua, Kanada azpian, hain zuzen ere. Seattle, “*Rainy city*” (hiri euritsua), azken bi-hiru hamarkadak ezaugarritzeko ezinbestekoa bilakatu da. Musikaren alorrean, adibidez, estilo bat erditu zuen, *grunge*-a, «oso zikina», alegia: Nirvana, Pearl Jam, Soundgarden... talde esanguratsuak oso.

Janzteko moduan ere garrantzi handia izan zuen; izan ere, denok Washington Estatuko basozainen alkandora koadrodunak eta praka gogorak eta astunak eramaten hasi ginen, Kurt Cobain imitatzeke-edo.



Ezkerrean, Larry Hagman, «Dallas» telesail ospetsuko JR pertsonaia gorpuztu zuen aktorea. Eskuinean, Fran Zappak 1988an Rotterdamen eskainitako kontzertuaren irudi bat.
Glenn FRANCIS | PACIFICPRODIGITAL.COM - Rob VERHORST | GETTY



MARYLAND:

ZAPPA «FOR PRESIDENT»

«Ronald Reagan baino okerragoa izango naiz akaso?». Argi eta garbi zuen Frank Zappa handiak. Musikari bat? Gehiago, jenio bat zen. Lehen kolpean ez da batere erraza entzuteko, baina saiatu, adibidez, “*Hot Rats*” diskoarekin eta ez zarete damutuko.

1992ko hauteskundeei begira, Marylandeko Baltimore hirian jaiotako Zappak bere ize-na eman nahi izan zuen, erdi serio eta erdi brometan. Eta sekulako esaldia utzi zuen hil aurretik: «Politika? Industria eta Armadaren entretenimenduen sektorea da».

OREGON:

CHUCK PALAHNIUK-EN BIDEAN

Nire idazlerik gogokoenetakoa da Chuck Palahniuk. “*Fight Club*” eleberriari esker famatua da, jakina, baina beste maisulan mordo bat utzi du: “*Choke*” (“Itolarria”) edo “*Survivor*” (“Bizirik ateratakoa”), besteak beste. Palahniuk-en gordintasuna eta bere umore beltza paregabeak dira, eta hain ezaguna ez den beste saiakera batean nabarmentzen dira: “*A walk in Portland*”. Ez da ohiko gidaliburu turisti-

koa, bidaia alternatibo bat baizik, Chuck bizi den hirian barena, Washingtondik hegoaldera dagoena. Ez duzue sekula hainbeste barre egingo.

MAINE:

«ERREGEAREN» ESTATUA

Nork ez du Stephen King idazlearen eleberriren bat irakurri? Asko daude eta urtero argitaratzen du zerbait berria. Norbaitek esan lezake nahikoa dela, baina “*Erregeak*” tinko dirau, “*On writing*” saiakeran aipatzen duen bezala, egunero-egunero (urtebetetze egunean eta Eguberri egunean izan ezik) idazten duelako.

Orrialdez orrialde Maine agertzen da nonahi gure barruko beldurrak astintzen, nahiz eta Estatu hori zinez lasaia eta berde kolorekoa den. Derry (“*It*” eleberrian, adibidez), Bangor, Chamberlain (“*Carrie*”) edota Castle Rock dira protagonistek zapaltzen dituzten tokiak: jakina, Chamberlain eta Castle Rock ez dira existitzen.

PENNSYLVANIA:

«BALA BAT BAINO EZ»

Pelikula bat gogorra eta hun-kigarria izan al daiteke, aldi berean? Oso gutxitan, ezta?



Ezkerrean, «Fargo» filmeko fotograma bat. Eskuinean, «Brokeback Mountain» filmeko beste bat. Eta behean, Las Vegas hiri ikonikoa gauez erakusten duen argazkia.
GAUR8 - Sergey STRELKOV | GETTY IMAGES



Bururatzen zaidan bakarrene-tako bat da “*The deer hunter*”, (“Ehiztaria”). Polemika handia eragin zuen Michael Cimino-ren lanak, Vietkong-a azaldu zuen moduagatik. Hala ere, protagonistak Pennsylvaniako lagun batzuk ziren, denak Errusiako migratzaileak, al-tzairutegian lan egiten zute-nak. Haien egunerokotasuna, tabernaren zaratak eta ohitu-rak, oreinak ehizatzearena, «bala batekin bakarrik, bestela ez da zuzena». Eta Vietnamgo gerra, komunitate txiki batean dena hankaz gora jartzen. Hi-ru orduko iraupena du peliku-lak, baina merezi du.

MINNESOTA:
KOMEDIA BELTZA MUNDU ZURIAN
Minnesotako Coen anaiak be-reziki maite ditut. “Barton Fink”-etik aurrera ez dut esan-go beren film guztiak maisula-nak izan direnik, baina gehie-nak bai. Hauen artean, nola ez, “Fargo”, agian anaien manifes-tua: komedia beltza hasieratik bukaerara, une absurdoak, pa-sarte surrealistikak, pertsonaia ahaztezinak. Frances McDor-mand ikaragarria da haurdun den polizia antzezten duena (guztiz merezita lortu zuen Oscar saria), Minnesota izoz-tuan, hiltzaileen bila. Bitxike-ria moduan, eta hau oso nor-

mala da Coen anaaien lanetan, Fargo hiria ez dago Minneso-tan, Ipar Dakotako Estatuan baizik... eta ez da apenas ager-tzen pelikulan zehar.

WYOMING:
ESTEREOTIPOAK APURTZEN
Ennis del Mar eta Jack Twist: hasiera batean izen horiek ez zaizkizu ezagunak egingo. Bai-na leku bat erantsiz gero, mis-terioa argituko da: Brokeback Mountain. Orain bai, bi cow-boy homosexual, bakeroen erreinuan, Wyoming-en, ale-gia. Ausarta izan zen Anne Proulx idazlea istorio hori as-matu zuenean (1997. urtean), eta bera bezain kementsua Ang Lee zuzendaria pantaila-ratzeko orduan, 2005ean. Sa-ria izan zuen ausardiak: hiru Oscar. Brokeback Mountain ez da existitzen, baina nori axola zaio hori estereotipoak desagerrarazteko toki ezin ho-bea bazen?


ALASKA:
LURRALDE BASATIAK
Zerk eramaten du bere etxetik heriotzara, literalki, gazte abe-rats bat? Obsesio batek. Chris-topher McCandlessena Alaska-ra joatea zen. “*Into the wild*” 2007ko pelikulak berreskuratu zuen bere abentura. Familia eta egoera «normala», edo

burgesa, hobeto esanda, atzean utzi eta helburu baka-rra aurrean: Alaska.
Kalifornian jaiotako Mc-Candlessek izena ere aldatu zuen, Alexander Supertramp bilakatuz (ez Trump, kontuz: “tramp”), “Alexander Super-ibiltaria” alegia, eta Alaskako bazter batean hil zen, bakar-bakarrik; 30 kilo pisatzen zi-

tuen ordurako, ez besterik, go sez hil zen. Autobus baten ba-rruan hil zen Chris, eta turista askorentzat bisita gun e bihur-tu zen.

ALABAMA:
GAUEKO BEROTASUNEAN
Tibbs inspektorea, edo «nola gerta daiteke protagonista bihurtzea hasieran izan ez arren». Egia da, “*In the heat of the night*” pelikulak ia 50 urte ditu eta egitura aldetik sinplea da oso, baina era berean beste ezerk baino garbiago erakus-ten du nolakoa zen egoera 1950eko hamarkadan AEBeta-ko hegoalde urrunean: leku hertsia-ki, zikintasun morala eta, nola ez, arrazakeria. Ongi etorri Espartara (honako hau Grezian ez, Alabaman dago): hilketa bat gertatuz gero sus-moak berehala beltzarengana zuzenduko diren tokira.

NEVADA:
JOLAS-PARKEEI BELDURRA
AEBetara joatekotan gertuen izan dud an aukera Las Vegas izan da. Zergatik? Lan kon-tuak. Tira, behin han egonda, saiatu zuek lan egiten. Horre-gatik baztertu izan dut aukera, azken finean. Las Vegas, beste-rik gabe: lagun askok «bizioa-ren hiriburua» ikusi eta berri-kusi du, eta bertan diru



dexente utzi ere bai, denbora kartetan edo erruletan jolasean azkar joan baitzaie.

Gauza gehiago ere kontatu didate bizitzan zehar: Mafiak kasinoak eraiki zituela –edo kudeatu zituela–, bero handia egiten duela kanpoan eta sekulako aire girotua dagoela barruan, zarata etengabeak... Arkaikoa izango naiz agian, baina jolas-parkeek beldurra ematen didate.

**INDIANA:
NORENAK DIRA BELARRIAK?**

Hitz magikoa *hoosiers* da. Itzulpenik ez du, nahiko misteriotsua da. Hitzaren jatorriak desberdinak omen dira. Askotan agertzen da *“hoosiers”*, estatuko biztanleen ezizen gisa. Migratzaile asko etortzen ziren garaian du oinarria, itxuraz.

Komunitate ezberdinek ez zituzten euren artean munduko harremanik politenak, eta behin baino gehiagotan eztabaidek borrokei ematen zieten bide. Kolpeka hasita, zerbait

lurrean gera liteke, belarriak adibidez, gorputzetik haginkadaz erauziak beharbada. *«Whose ears?»*, «Norenak dira belarriak?». *«Whose ears»* hartatik, egungo *«hoosiers»* sortu zen.

**HEGO DAKOTA:
LAU PRESIDENTEAK ETA ZALDI EROA**

Lehenengoz AEBetara joango banintz, Mount Rushmore izango litzateke bisitatuko nukeen lehenengo tokietako bat. Eta Black Hills orokorrean, Muino Beltzak. Kontraesan itzelak daude hor; alde batetik, lau presidenteren aurpegiak (Washington, Jefferson, Lincoln eta Teddy Roosevelt; Trumpek ere horien artean agertzea merezi duela aipatu du), eta bestetik, nahiko gertu, siux indioak bizi ziren lurraldea, menderatuak izan aurretik. Siux etniako buruzagi zen Zaldi Eroaren omenez sekulako oroitarria ari dira harritik ateratzen, aurrekoak bezala, korapiloa askatzen hasteko.

Behean, ezkerrean, Mount Rushmore mendian zizelkatutako lau presidenteen aurpegiak. Eskuinean, LeBron James eta Stephen Curry Olinpiar Jokoetan lortutako garaipena ospatzen. GETTY IMAGES - Christina PAHNKE | GETTY IMAGES



**IDAHO:
KEANU REEVES EUSKALDUNA?**

Euskal Herrira bizitzera etorri aurretik ez nekien Idahon honelako euskal aztarna zenik: baserritar, artzain eta cowboyen artean, ezagutu ondoren guztiz normala irudituko litzaidake. Dena den, niretzat Idaho *“My own private Idaho”* zen, Keanu Reeves eta River Phoenix gazteak protagonista dituen pelikula sasi-madarikatu. Hor ez zen ezer euskaldu-nik ageri, Italia azaltzen da, baina zer axola du horrek?

**WISCONSIN:
NOR DA DAHMERREN BELDUR?**

Lurralde batentzat penagarria da hiltzaile batek fama ematea. Milwaukee honezkero ez da Harley Davidson motorren hiria, baizik eta, aspaldiko partez, Jeffrey Dahmerren ingurua. 2022ko Netflixen telesaila agertu ondoren hausnartu genuen orrialde hauetan horretaz: nola ez zuen Poliziak Dahmer kontrolatu? Kontua da kontraste ikaragarria dagoela Wisconsin ohiko bakearen

eta honelako hiltzaile baten artean. Jeffrey Dahmer, kani-bala, AEBetako aurpegiarik eta izenik beldurgarrienetako bat da, baina, une berean, ia pop ikonoa bilakatu da.

**OHIO:
VANCE BAINO LEHEN, LEBRON
ETA STEPH**

JD Vance, ze nolako tipoa, presidenteorde izateko hautagai errepublikanoa. *“Hillbilly”* mitoa eraiki zuen, bere liburuari esker (irakurria dut, oso inter-esgarria da, egia esanda): laburbilduz, nola AEBetako erdi-guneko Estatuak eta bertako langileak «atzean» utzi dituzten, laguntzarik gabe, alegia.

Ohikoa da Vance, hor ez dago ez muinorik ez mendirik, amaierarik gabeko lautada bat baino ez. Baina hiri bat oso emankorra izan da saskibaloiaren munduan: harrigarria da Akron hirian bi supertxapeldun jaio izana, LeBron James eta Stephen Curry. Jar itzazue hiru ezezagun gehiago bosteko berean, eta NBA irabaziko duzue agian.

